

# LIZTOR ASIARRA

## EKIALDEKO MEHATXUA

**Gaiak Argitaletxea**

**Egilea: Asier Goia Urigain**

**Arloa: Biologia**

**Webgunea: <http://www.gaiak.net>**

**2012/12/09**

Azken hilabeteetan nabarmen hazi da liztor asiarrari (*Vespa velutina*) buruz hedabideetan egindako aipamenen burrunba. Euskal Herriko erlezainek, ordea, aurretik ezagutzen zuten, erlauntzetan eragin ditzakeen kalteak direla eta.

Liztorrak, inurriak, erlastarrak eta erleak bezala, 115.000 espezie dituen *Hymenoptera* ordenakoak dira. Talde horrek berebiziko garrantzia du gizakiarentzat; izan ere, talde horretakoak dira baso-ustiapenetan izurriak eragiten dituzten intsektu fitofagoak nahiz espezie polinizatzaile asko. Beraz, talde horretako intsektuek beste espezie batzuekin ezartzen dituzten harremanek ekosistemak eralda ditzakete.

Espezie baten populazioak leku jakin batean bizi daitezkeneko ingurumen baldintzen multzoari nitxo ekologikoa deritzo. Espezie batek komunitatean betetzen duen "funtzioa" dela esan daiteke. Hortaz, bai liztor europarra edo "liztortzarra" (*Vespa crabro*), bai liztor asiarra, intsektu askoren harrapakariak dira. Biek "funtzio" bera betetzen dutela esan liteke baina bigarrena askoz eraginkorragoa da harrapakaritza lanean. Gainera, liztor asiarraren hedapenak gure lurraldeko bioaniztasuna arriskuan jartzen duenez, espezie exotiko inbaditzaile izendatu da berriki.

### **Espezie exotiko inbaditzaileak**

Espezie horiek beren esparru naturaletik kanpo bizirik irauteko eta ugaltzeko gai diren eta bioaniztasunean kalteak sortzen dituztenak dira. Egun, aditu gehienen esanetan, habitaten suntsiketaren atzetik, espezie exotiko inbaditzaileen sarrera da mundu mailako bioaniztasun galeraren arrazoi nagusia. Argi dago, globalizazioarekin batera, arazo hori azken urteetan areagotu egin dela baina ezin da berria denik esan. Adibidez, XIX. mendearen bukaeran, kolonizatzaile europarrek katuak eta arratoiak eramane zituzten haiekin batera Ozeaniako uharteetara (Australia, Hawaii, Polinesia...) egindako bidaietan eta animalia horien hedapenak hamaika hegazti endemikoren iraungitzea ekarri zuen.

Liztor asiarrari dagokionez, bere bizi eremu naturala Indiako iparraldetik Txinaraino eta Indotxinatik Indonesiaraino zabaltzen da. Dirudienez, 2004. urtearen amaieran, Txinatik Bordeleko portura zeramikazko produktuak zekartzan edukiontzi batean iritsi ziren lehen aleak. Egun, *Vespa velutinaren* bizilekuak Frantziar lurraldearen azalera erdia hartzen du -mendebaldea bereziki-, eta dagoeneko Belgikan, Katalunian, Aragoian eta Euskal Herrian aurki daiteke. Gainera, oso litekeena da hurrengo hamarkadetan mediterranean eskualdean zehar barreiatzea.

### ***Vespa velutina nigrithorax.***

Liztor asiarrak 12 azpiespezie ditu, eta Frantzia sartutakoa *nigrithorax* deritzon aldaerari dagokio. Liztor horren ia gorputz osoa beltza da, eta, ezaugarri hori dela medio, "liztor beltza" ezizena jarri diote. Hala ere, intsektu horren sabelaldeko laugarren segmentua hori-laranja da, aurpegi laranja du eta hankak, aldiz, oinarrietan marroiak eta muturretan horiak dira. Gorputzaren tamainari dagokionez, langileek 3 zentimetroko luzera dute, europarrak baino handiagoak dira, eta erreginek 3,5-4 zentimetroko luzera dute.

Liztor asiarra eta europarra koloniak osatzen dituzten intsektu eusozialak dira. Talde-antolaketa konplexu horretan, liztor bakoitzaren zereginak modu zehatzean banatzen dira, eta hiru kasta daude: erreginak edo eme sortzaileak, eme langileak eta arrak.

Urtero, otsailaren hasieratik maiatzera arte, sortzaileak negualditik atera eta bakoitzak kolonia bana sortzen du. Udaberrian, erreginak leku babestu batean errundako arrautzetatik langileak jaiotzen dira eta beraien arduratzen dira bigarren habia eraiki eta zaintzeaz. Habia landareetatik erauzitako eta murtxikatutako zelulosaz eraikitzen dute langileek, eta, normalean, 60 zentimetroko diametrokoa eta metro bateko luzerakoa da. Arrak udaren amaieran edo udazkenean agertzen dira eta eme sortzaileak ernaltzen dituzte. Negua iristean, erregina, langileak eta arrak hil egiten dira, eta ernaldutako sortzaileak soilik bizirik irauten dute, babesleku batean hibernatuz.

Liztorrak karbohidratoak eta proteinak behar ditu elikatzeko. Lehenek helduen energia-beharrak asetzen dituzte eta bigarrenek larben garapena bermatzen dute. Langileek fruitu helduetatik eskuratzen dituzte beharrezko karbohidratoak, proteinak, ostera, gainerako intsektuetatik lortzen dituzte. Hiriguneetan, proteina-iturrien % 80 osatzen dute erleek; landa-eremuetan % 50. Ikerketen arabera, 5 liztorrek baino gehiagok erlauntza erasotzen dutenean, eraso horrek halabeharrez erlauntza osoaren heriotza dakar.

### **Mehatxuaren kudeaketa**

Gure inguruan oso gutxi dira espezie horren harrapakari naturalak. Neguan, habia ahulen dagoen garaian, okil berdeak (*Picus viridis*) eta eskinosoak (*Garrulus glandarius*) begiztatu dira azken larbak jaten, baina ez dirudi liztorren garapenean eragin handirik dutenik.

Espezie horren kudeaketarako prebentzioan, populazioen kontrolean eta habien suntsiketan jardun beharra dago. Lehen arloan, orain arte, erlauntzetako sarreren tamaina murriztu eta ezti-bilketako protokoloan aldaketak ezarri dira. Populazioen kontrolerako, eme sortzaileak eta langileak erakartzeko garagardoa eta ziropa dituzten tranpak erabili dira. Azkenik, habien suntsiketan ere ekimen ugari egin dira. Hala ere, aditu gehienek ezinezkotzat jotzen dute liztor asiarraren hedapena gelditzea eta, gehienera jota, hori moteltzea lor daitekeela uste dute.

### **Ba al zenekien?**

Euskal Herrian ezarri diren espezie exotiko inbaditzaileak honako hauek dira, besteak beste:

- Koipua (*Myocastor coypus*): Frantziara larru-ekoizpenerako ekarritako karraskari hegoamerikar hori bere kabuz iritsi zen Gipuzkoa eta Nafarroa iparraldeko hezegune eta ibaietara.

- Reynoutria (*Fallopia japonica*): Asia ekialdeko landare hori bazka-laborerako eta eztingintzarako sartu zen lehenik, eta, ondoren, apaingarri gisa erabiltzeko. Dagoeneko, Euskal Herriko ibaiertz eta areka askotan ikus daiteke.